

# **AZKUE BIBLIOTEKAREN INAUGURAZIO EDO ESTRENATZEA**

*Bilbo, 1992-VI-26*



## AZKUE BIBLIOTEKAREN ESTRENATZEA

*Bilbo, 1992-VI-26*

*Jean Haritschelhar  
eusklatzainburua*

Agintari agurgarriak,  
Euskaltzain kideak,  
Andereak eta Jaunak

Berriz era bilduak gara Euskaltzaindiaren egoitzan ekintza aipagarri baten ospatzeko. Etxe eskaintza duela orain zazpi bat urte, etxe hartzea igazko apirilean, etxe sartzea iragan urrian, liburutegiaren estrenatzea (hala diogu iparraldean) ekainaren azken ortzirale honetan.

Zertako ote estrenatze berezi hau? Alde batetik, egoitza honetan sartu garelarik, aldatu berria zen liburutegia, ez ziren liburuak behar den bezala ezarriak, liburutegi baten apailatzeak galdatzen duelakotz arabera-ko denbora.

Bertze aldetik, erran nahi nuke Euskaltzaindiaren lana euskararen zaintza, euskararen bultzatzea, euskararen ikertzea balinbada, ez dituela hiru xede horiek beteko ez balinbaditu eskuen artean behar diren tresnak, tresneria hori liburutegia delarik.

Egia erran, Euskaltzaindiaren liburutegia balio haundikoa da. Liburutegi publikoa da, baina ez edozein jenderentzat. Euskaltzaindiaren liburutegira etortzen dira bereziki ikerleak, euskarari edo euskal kulturari buruz lanean ari diren ikerleak.

Aldi bat baino gehiagotan, tesi epai-mahaiean naizelarik entzuten ditut —poz haundirekin naski— Euskaltzaindiaren liburutegiari egiten zaizkion laudorioak. Adibide baten emaiteko hona zer idazten duen Javier Diaz Noci-k bere doktore izaiteko tesiarenean:

“Tesi hau neurri haundi batetan posible izan da Euskaltzaindiko bibliotekario den Jose Antonio Arana Martijari esker; Euskaltzaindiak utzi zigun Azkue Bibliotekan dauden euskarazko aldizkari guztiak. Gainera, benetako ohore bat izan da Arana Martijaren aholkuak jaso eta bere konpainiarekin, Azkue bibliotekan eman ditugun ordu pilatan lan

egin ahal izatea. Eskertu behar ditugu baita ere haren laguntzaileak diren Nere eta Josune'.

Hitz labur honetan datza liburutegi baten kalitate haundia:

1. Ondare bat izaitea, behar den bezala hornitua, egunero aberasten dena, erosketak eginez, emaitzak hartuz (eskerrak bihurtzen dizkiet emaile guztiei) trukaketak eginez bertze aldizkariekin *Euskera* agerkariari esker.
2. Ongi etorria eginez ikerle guztiei, gidatu behar baitira ez dezaten denborarik gal bere ikerketetan. Orain bertan irakurtu dudan lekukotasunak erakustera emaiten du Azkue Bibliotekan ari diren langileek osoki betetzen dutela beren eginbidea.

Liburutegi baten aberastasuna ez dago gaur egun liburuetaen bakantrik. Mende honetako aintzinamenduak kontutan hartuz, ikus-entzuneko dokumentuak behar dira bildu, argazki, filma, bideo, diska, kazetak eta bertze, ahantzi gabe artxiboetako paper zaharrak, aldizkari, astekari, egunkari eta bertze.

Beti gaurkotuz, beti aberastuz, Euskaltzaindiaren liburutegiak lagunduko ditu ikasle, erakasle eta ikerleak doakion bezala. Eguneroko lana da dokumentu guztien biltzea, bakezko lana. Iragan denboretan, Umar batek erretzen zuen Alexandriako liburutegia, duela zenbait mende sura botatzen ziren liburuak “autodafé” delakoetan eta holako suak piztuak izanak dira mende honetan Alemanian eta ideologia bera bizi zuen militar batek oihu lazgarri bat bota zuen: “Muera la inteligencia”.

Ilunbetarik ateraiak gara eta bakean jarraikiko du Euskaltzaindiak, daukan Azkue Bibliotekari esker, duela 73 urte hasi duen euskararen eta euskal kulturaren dokumentu guztien bilketa euskal ikerketen onerako.

## **AZKUE BIBLIOTEKAREN HISTORIA**

*Bilbo, 1992-VI-26*

*Jose Antonio Arana Martija*

Gure Erakundearen barne historia aztertu eta idatzikeran badaude bihotzeko gaiak, eta niretzat behintzat gaurko hau benetan hunkigarria da Euskaltzaindiarekin izan dudan loturak estuena liburutegia izan baita. Azken hamalau urteotan hurbiletik zuzendu izan dudan ondarearen arlo hau nire bizitzako ardurarik iraunkorrena izan bada, pozgarriena ere izan dela aitortu behar dut eta inork esatekotan nik esan dezaket 1978.eko azaroaren 24-ean euskaltzain osoek egotzi zizkidaten lanak, ardura haundikoak baziren ere, gustura egitekoak izan direla.

Hainbat lan neketsu eta xehetasunez betea burutu ondoren, gaur zabaltzen dugu egoitza berri honetan Azkue Biblioteka. Aspaldiko asmoa eta ametsa bete da ba. Eta aspaldikoa diodanean, Euskaltzaindiaren sorre-ra egunetararte hitzaldi honetan noalako da, gure erakundearen hirurogeita hamabi urteko historian beti izan baita liburutegia begininitakoa. Hala agertzen da historiaren zehar, aztertu ditudan dokumentuetan, agiriak hain zuen, hauek bait dira historia egiteko oinarri ofizialak eta fidagarriak. Ikerketa sakonagoa egiteko badaude, bai, beste dokumentu argigarriak, artxiboan dauden gutunak esate baterako. Eta bateren batek egin lezaken, eta behar bada egin beharko luken azterlana da. Bainan horretarako soseguia eta astia behar direnez, nik egindako lan hau, orain-goz, onar dezazuela eskatzen dizuet.

Euskaltzaindiaren lehendabiziko karguen hautaketa Donostian egin zen, 1919.eko urriaren 7an. Azkue, Eleizalde eta Agerre izan ziren euskaltzainburu, idazkari eta diruzain hautatuak. Ez zegoen orduan buruorderik, Etxaide 1950ean izendatua izan arte. Bainan karguen artean *gutun-zaina* ere hautatua izan zen: Julio Urkijo hain zuzen. Kargu hori, dirudienez, artxibariarena zen, hasiera hartan libururik ez zeukalako Akademiak. Bainan gutunak eta dokumentuak zaintzetik aparte, beste beharrizan bat ere nabari ikusi zuten orduko euskaltzainek, zeren eta 1920.eko urriaren 22an, RIEV aldizkarian Urkijoren laguntzailea zen Géorges Lacombe izendatu zuten “lankide gutun erosketarako”. Hurrengo urteko hautaketan, Donostian 1921.eko ekainaren 28an egindakoan, Lakonbe (euskarazko

grafia horrekin) izan zen Gutunzain izendatua eta kargu horretan iraun zuen 1947an hil arte. Ordurako Azkuek Erriberako egoitzara eramana zeukan bere liburutegia eta liburu erosketetan ziharduen Lakonbek, hala nola, Bonaparteren argitarapenak, gutunak eta beste. Liburutegiaren era-bilerarako araudi bat ere prestatu zuen Lakonbe jaunak 1921.eko urrian.

Gerraren zioz larria izan zen Euskaltzaindiaren egoera. Liburutegiari dagokionetik, ez zegoen erosketak egiteko dirurik, anekdota honek adierazten digunez: 1946.eko martxoaren 29an zera irakurtzen da agirian: “Federico Castro Guisasolaren liburugai bat erosteko aspaldian dirutan urri dagoela-ta, ezin oraingoz erosi leikela”. Liburu bakar bat erosteko dirurik ez zeukan erakundeak, hainbat urteren zehar liburutegia aberasteko aukerarik ez zuela izan argi eta garbi azaltzen zaigu.

Azkuek heriotzera eramango zuen istripua izan ondoren, 1951.eko urriaren 30ean euskaltzainek egin zuten bileran Juan Gorostiagari eman zioten euskaltzainburuaren liburutegia zaintzeko ardura. Lehenagotik zegoen liburuzain kargurako hautatua, data ez dugularik ezagutzen agirietan ez bait da agertzen. Baino Azkueren liburutegiaren emaitza ofiziala geroago etorri zen, 1953.eko apirilaren 24ean egindako bileran agertzen bait da horren berri, Gregorio Maidagan eta Jorge Villa ondorengogandik:

“Azkuek Euskaltzaindi-etsean eukazan liburu eta paper guztien eta argitaraturiko liburu-eskubidean emoitza egiten dautse Euskaltzaindiari. Gorostiaga gutunzain izentau dan ezkerro, Euskaltzaindi-etsean dagozan beste liburu ta gauza guztien zerrenda zeatz eratu dagiala ta ororen ardura ta erabilera ebatzi dagiala bere erabakitzentz da”.

Urte bereko irailaren 25ean egindako bileran agindutako lanaren errendapena egin zuen Gorostiagak “asi dala liburu zerrendea gertatzen” irakurtzen da agirian eta.

Aldaketa nabarmenak datozerik hurrengo urtean. 1954.eko irailaren 24ean egin zen bileran Gorostiagak Ameriketara zihola adieraztera eman zuen. Ordurako lanean hasia zen Alfonso Irigoien eta horrezaz gain bere poltsikotik laguntza ematen ere, egun bereko agirian irakurtzen bait dugu Xabier Peñak eta berak ordaindu zituztela bibliotekako muebleetan eginko obra batzu. Etxaide euskaltzainburu zen garai hartan, Oleaga euskaltzain osoa zen zadorlari edo idazkari eta Maidagan, euskaltzain urgazlea, diruzain. Biak izan ziren 1941ean hautatuak eta biak hil ziren 1961ean. Baino Gregorio Maidaganek bertan behera utzita zeukan kargua eta Alfonso Irigoienek betetzen zuen behin-behinean diruzain kargua 1955.eko urtarriaren 1ean izendatua izan zenetik, liburuzainarena ere Gorostiaga joan zenetik betetzen zuelarik. Hala irakurtzen da egun hortako agirian:

“A. Irigoienek gutunzaintzan eta diruzaintzan Gorostiaga eta Maidagan jaunari lagunduz, Euskaltzaindiaren alde egiten dauzan lan neke-tsuk (apatzten dira). Lan ori orain arte doan egin dau. Ez da egokia au.

Irigoien jaun ori Gutunzaintza, Diruzaintza, Idazkaritza eta beste Euskaltzaindi arazoetako langille izendatzea erabaki da. Ordu bete goizean (12/1) eta beste bat arratsaldean (3/4)".

*Euskeria* agerkariaren ardura ere bazeraman Irigoienek eta 1955.eko martxoaren 29an egindako bileran "zorion-agur sutsua erakustea erabaki da". Baino Oleaga ere gero eta bilera gutxiagotara etortzen zenez, adinagatik noski, Mitxelena izan zen Idazkari-orde izendatua 1955.eko apirilaren 25eko bileran. Beraz, 1955.etik aurrera Etxaide izan zen euskaltzainburu, Mitxelena idazkari-ordea eta Irigoien diruzain-ordea eta batera liburuzain-ordea. Baino azken ordezkatze honetan hiru urtez jarraitu zuen 1958.eko apirilaren 24ko bileran, Gorostiaga jauna, Ameriketatik herriratua, izan bait zen berriz liburuzain izendatua.

Azkueren liburutegia izan zela Euskaltzaindiaren bibliotekako lehen ondarea esana da, eta gerra aurrean, Lakonberen ardurapean, erositakoak gehitu zutela ondare hori aitortu behar da. Baino Altube erbestetik Gernikara etorri zenean izan nuen berarekin egoteko parada. Pabetik ekarritako liburuak Euskaltzaindiri eskaintzea erabaki zuen, naiz eta niri ere mordo bat eman. Hala zioen Irigoienek 1958.eko maiatzaren 29ko bileran: Altubek "bere liburu mordo bat Euskaltzaindiari emon gura deutsola". Eskaintza hau azorako burutua zen hil horretako bileran berri hau eman bait zuen Irigoienek: "Altube jaunak Euskaltzaindiri eskeiñiko liburuak jaso direala". Beste emaitza bat ere izan zen gerotxoago, 1962.eko azaroaren 30ean: "Juan Ramon Urkijok RIEVen aleak eta Julio Urkijok argitaratutako liburu batzuk" gure erakundeari eman zizkio-la agertzen da bilerako agirian. Aberasten zihoan gure biblioteka, eta itxura berri bat hartzen ere. Gabriel Arestiren bidez Gineako ohol berria jarri zen Erriberako egoitzan eta izena eman ez nahi zuen emakume batek pinkia ordaindu zuen, 1962.eko urtarrilaren 26ko bileran azaldu zenez.

Eraberritzte bat etorri zen 1963.eko apirilaren Sean Jose Maria Lojendio euskaltzainburu izendatua izan zenean Donostian. Behin behineko karguak zeuden eta zuzendaritza tinko bat izendatu behar zen efikaziari begira. Urte bereko urriaren 25ean Bilbon egin zen bileran honako kargu hauentzat izendatuak izan ziren:

Idazkaria: Koldo Mitxelena  
 Idazkari ordea: Alfonso Irigoien  
 Diruzaina: Eusebio Erkiaga  
 Liburuzaina: Lino Akesolo

Berriki euskaltzain oso hautatuak ziren azken hirurak. Baino Diruzainak eta Liburuzainak ez zuten onartu euskaltzain izendapena eta araudi berriak karguetarako euskaltzain oso izan beharra eskatzen zuenez, bete gabe geratu ziren karguak. "Bere lanak artu eztituzten bitartean langilleren bat artzea" erabaki zen 1964.eko martxoaren 20an, eta azkenean, urte

bereko azaroaren 27an honako berri hau eman zen bileran: María Angeles Alberdi, Gorozikako maistra langiletzat hartua zela. Azkenean, Erkiagak eta Akesolok amore eman zuten, baina baldintzakin: Erkiagak onartzen zuen esukaltzain izendapena, baina ez zuen kargurik nahi. Akesolok ostera uko egiten zion euskaltzain izendapenari, urgazle izanez jarraituz, baina onartzen zuen liburuzain izatea. Bilera horretan, 1965.eko otsailaren 26an, Irigoien izan zen bulego-buru izendatua, soldatarekin. Nahiz eta urte pare batetan Akesolo liburutegian ibili, 1965.eko martxoaren 26an egin zen bileran erabaki zen ezin zuela karguan jarraitu urgazlea baitzen. Dena konpondu zen 1966.eko abenduaren 30ean zuzendaritza berria hautatua izan zenean:

Euskaltzainburua .....	Manuel Lekuona
Idazkaria .....	Juan San Martin
Idazkari-ordea .....	Alfonso Irigoien
Diruzaina .....	Eusebio Erkiaga
Liburuzaina -----	Juan Gorostiaga

Azken hamairu urteetan ez zen buruorderik hautatu, eta bilera honean kargu hori bete zuen Jean Haritschelhar jaunak, 1988ra arte kargu horretan jarraitu zuenak, beraz hogeita bi urteren zehar, Euskaltzainburu izendatua izan arte. Gero, Luis Villasante euskaltzainburu izendatua izan zenean 1970.eko uztailaren 29an, San Martinek eta Erkiagak jarraitu zuten beraien karguetan eta 1967.eko martxotik Gorostiaga ez zenez liburutegitik agertzen Irigoien izan zen liburuzain izendatua. Azken hau ere bulegoan ez zegoenez, 1968/1969 ikasturtean Salamancara joana zeudelarik, Jose Luis Lizundia izan zen idazkari-orde kargurako izendatua 1970.eko bilera horretan.

Aspaldidanik liburutegian ibilia zen Irigoien liburuzain berriak txosten bat irakurri zuen Donostian 1971.eko urtarriaren 29an egin zen bileran. Hala zioen:

“Irigoyen euskaltzain jaunak liburutegiaren antolakizunari buruzko txosten bat irakurri du. Euskaltzaindiaren biblioteka hornitzen duten libururik gehienak Azkue zanak utzitakoak direla, eta ez gutxi Altube zanak ere. Euskaltzaindiko bibliotekak espezializatua behar duela (izan), batez ere linguistika generala, euskal linguistika eta euskal literatura, eta gainerako liburuak horren inguru. Liburuak gureganatzeko hiru bide ditugula: beharrekoenak erostea, zenbait errebiesta gurearen trukez hartuaz eta Euskal Herriko editoriale ale bana bialtzen ohiuz. Trukean, orain ere aldizkari asko hartzen direla, gehitu ahal izateko. Eta ordenamenduaren gora beheran eman ditu zenbait argitasun”.

Irigoienek duela hogeita bat urte urraturiko ildotik joan da geroztik liburutegiaren ibilpidea. Baina une hartan beharrezkoan zen liburutegiaren egoera eta funtzionamendua eraberritzea. Hala ikusi zuen Euskaltzaindiak 1971.eko irailaren 24ean, liburutegia berriztatzeko kanpaina bat bulztatuz. Irigoien, Lizundia eta Astiz jaunen eskuetan utzi zen ardura hau.

Data horretatik hiru hilabetera, “liburutegia zelan ordenatzen ari denari buruz berria eman zuen” Irigoienek. Migel Angel Astiz kazetariak, *La Gaceta del Norte* egunkarian bizpahiru artikulu argitaratu zituen Euskaltzaindiaren liburutegia eraberritzeko diru laguntzak eskatuz, eta erakundeak berak, 1971.eko abenduan, *Euskaltzaindiari laguntza*. *Liburutegiaren arazoa* izeneko iragarkiari zabalkundea eman zion, nahi zuena lortzeko dirulaguntzak jaso zituelarik. Hauekin bideratu zen eraberritze hori, irakurle gelako mahaiak, apalategi berriak, eta abar 1972an jarriz. Deialdi horrek beste eragin bat ere izan zuen, hots, gero eta liburu gehiago erosketaz edo dohainik jasotzea. Eta ordurarte hileroko bileretan jasotako liburuen zerrenda ahoz ematen bazuen liburuzainak, gero eta gehiago zirenez hartutakoak, *Euskera* agerkarian zerrenda argitaratzea erabaki zen. Hara 1972an kaleratu zen 1971.ekoan agertzen zen oharra:

“EGILE ETA ARGITARATZAILEEI OHARRA: Lerro hauetan 1968 eta 1969-an hartu ziren liburuen agerpena egiten dugu. EUSKERA-ren ondorengo zenbakietan, era berean, hartzen direnen berri emanaz jarraituko dugu. Euskaltzaindiaren liburutegia euskal linguistika eta euskal literaturaren biblioteka berezia izan dadila nahi genuke, nahiz eta euskal kulturaren beste sail batzuk ere ontzat hartu. Baino, ahalik eta osatuena izateko, zuen laguntza behar dugu eta argitara ematen duzuten liburuetatik bidali ale bat bederen. Eskertuko dizuegu guztiona den Euskaltzaindiko biblioteka aberasten laguntzeearren, eta sail honen bidez irakurleai ezagutzena emango diogu, zuen liburuaren zabalkunderako. Aldez aurretik eskerrikasko.”

Eta liburuzainetik aparte, beste euskaltzain batzuk ere bibliotekarekin arduratzen hasi ziren. Gogoan daukagu Nikolas Alzola Deustuko lasalletarren komentura etorri zenean liburuen fitxak egiten ari izan zela, eta estima handiarekin gordetzen ditugu artxiboa harek egindakoak. Juan San Martin idazkariak ere, 1973.eko otsailaren 23ko bileran txosten bat irakurri zuen honako gai honetaz: “Euskal Kulturaren inguruko heme-rotokaren hornitzeaz”, bere ustez hartu behar ziren hamairu aldizkarien tituluak eta helbideak eman zituelarik. Hartzen ziren liburuen kopurua goraka zihoa eta liburuzainak hilero ahoz ematen zuen jasotakoena zerrenda, nahiz eta agirian zerrenda agertu ez, urtearen azkenean baizik. Baino agirietan azaltzen zen liburuzainak bete zuela araudiak eskatzen ziona.

Une larriak etorri ziren geroztik, Erriberako etxea hondamendi egoeran –“ruinan” dio 1976.eko otsailaren 6ko agiriak– deklaratu nahi zuten eta. Hala eta guztiz ere, txosten bat irakurri zuen bilera horretan Nikolas Alzolak: argazki eta grabazioen artxiboa antolatzea eskatzen zuen Bitaño ezizenero honek.

Egoitzaren –eta bertan zegoen liburutegiaren– egoera desegokia eta arriskutsua nabaria zen. Horregatik, 1978.eko martxoaren 31an egin zen bileran, *Bai Euskarai* kanpaina antolatzea erabaki zen. Lortuko zen diruarekin beharrizan hauek bete beharko ziren: 1. Egoitza berria; 2. Bibliote-

ka eraberritzea; 3. Iker lanak bultzatu; 4. Hiztegintza lanetan hasi; 5. Argitarapenak kaleratzen hasi. Kanpaina hori ekainean bukatu zen eta uztailaren 28ko osoen bileran bi premiazko gai hauek aukeratu ziren: 1. Euskararen Lekuko liburuak prestatzen eta kaleratzen hastea, eta 2. Liburutegia antolatzea eta osotzea. Han nengoen ni orduan, oporraldian, edo hobe esteko langabezián, Azkueren musika paperak taitzen. Behar zen bezalako liburutegia antolatzeko ez zegoen tokirik Erribera kaleko egoitzan, administrazioko lanak eta langileak gehitzen zihoa zen neurrian txikia geratzen baitzen egoitza. Euskaltzainburuak egindako eskari bati erantzuna emanaz, 1978.eko urriaren 6an onartu zuen Bizkaiko Diputazioak administrazio bulegoetarako Arbieto kalean etxebizitza bat Euskaltzaindiari uztea. Horren berri urriaren 27an egindako bileran eman zen eta zera erabaki: "oraingo etxeen liburutegi eta artxiboa<sup>1</sup> jarraituko" zutela.

Bilera horretan beste erabaki bat ere hartu zen: "Jose Antonio Arana Martija jauna Euskaltzaindiko liburutegia ordenatzeko eta gaurkotzeko kontratatzea". Beraz, 1978.eko azaroaren lehen egunetan hasi nintzen lanean, Nerea Altuna andereñoaren laguntza hurbila izan nuelarik. Administrazio bulegoak Arbieto kalera eraman ziren eta liburutegi eta artxiborako geratu zen Erriberako toki osoa. Euskaltzaindiak azaroaren 24ean egin zuen bilerarako, ene ustez egin behar ziren obren eta antolamenduen proiektua aurkeztu nuen, Alfonso Irigoien liburuzainaren bidez igorria. Aurrerantzean Euskaltzaindiaren liburutegia *Azkue Biblioteca* deitzea ere proposatzen nuen, eta orokorrean onartua izan zen nere proposamena. Hauteskunde eguna zen hora eta liburuzainari dagokionetik, ahobatez Alfonso Irigoien izan zen liburuzain hautatua, ni rieu laguntzaile izendatua izan nintzelarik. Proposatutako obrak azaroan, abenduan eta 1979.eko urtarrilean buruturik (irakurle gela, barruko ateak, apalategiak, artxibo itxia, bulegoa, eta abar) beste era bateko lana eta zerbitzua antolatu zen orduan. Hamar urtez jarraitu genuen elkarlanean Irigoien jaunak eta biok, 1989.eko otsailaren 24ean, Lazkaoko Barne Jardunaldietan Pello Salaburu bibliotekaria izendatua izan zen arte. Arautegiaren arabera, lanaren antolamendurako eta bibliotekaren erabilpidera-ko beharrezko zenez, 1981.eko irailaren 25eko bileran *Azkue Biblioteca-ren Erregela Bereziak* onartuak izan ziren. Plaza Barriko egoitza berri honek eskatzen eta ematen dizkigun baldintzengatik erregela horiek egokitu beharko ditugulakoan nago.

Erribera kalean zegoen biblioteka eta artxiboa egoitza berri honetara ekartzeko eman ditugun urratsak adieraztea luze joango litzaken gaia da. Diputazioak, Jose Maria Makua jaunaren eskutik, etxe hau 1985ean eman ziguenean, asko dira asmatu, aztertu eta aldatu ditugun proiektuak. Azkenean, ikusiko duzuen honetara heldu gara. Data historiko bat azpi-marratu nahi nuke: 1991.eko irailaren 4ean hasi ginen lanean biblioteka berri honetan. Azken hamar hilabeteotan hainbat lan burutu behar izan ditugu, hala nola, Erribera kaleko egoitzan zeuden liburu eta aldizkariak

1.700 kutxetan ekarri eta apalategi berrietai taiuz kokatu, segurtasuneko aparailuak jarri, informatizazioa behingoz erabaki eta funtzionatzen ipini, fonoteka eratu eta beste hainbat xehetasun ikerlei zerbitzu modernoa eman ahal izateko. Pozik eta harro gaude benetan lortu dugunarekin. Hitzak baino adierazgarriagoak kopuruak eta datu zehatzak izaten direla-koan, hurrengo laukian, eta laburpen gisa, zera ematen dugu: 1979an hasita izan ditugun sarrerak, jasotako ondare bereziak (100 aletik gorakoak) eta antolatutako erakusketak:

Urtea	Sarrerak	Ondare bereziak	Erakusketak
1979	4.370		
1980	3.026	Jorge Villa 315	K. Etxegarai: Gernika
1981	3.627	Juan San Martin 404	
1982	12.369	Juan C. Guerra Goñi herrik Juan San Martin Barkaiztegi Garcia Zabaleta <i>Vida Vasca</i> artxiboa	4.875 450 429 354 170
1983	5.378	Norbert Tauer J. Rodríguez Salis Juan San Martin	721 270 200
1984	7.752	Ortiz de Vidasolo Jose Luis Lizundia	1.463 225
1985	5.156		
1986	6.058	Jokin Zaitegi 270	Kartografia: Gateiz
1987	7.664	Jokin Zaitegi 1.722	Kartografia: Urduña, Gernika Iruñea, Leitza, Zarautz
1988	5.428	Alfonso Irigoien 168	Euskal liburuak: Barcelona Kartografia: Portugalete, Errenteria Euskal liburuak: Gernika
1989	7.164	Maria Paz Ziganda 2.409	
1990	5.919	Villasanteren artxiboa <i>"La Gaceta"</i> bilduma	Kartografia: Lizarra Mendiburu: Donostia, Gasteiz, Deusto, Andoain
1991	5.445	Jose Maria Olaizola 980	Bonaparte: London, Bilbo, Baiona
<b>79.356</b>			

Erosi edo dohainik jaso ditugun liburutegi batzuk eta emaile aipagarrrien izenak eman ditut. Baino ez nituzke ahaztu nahi beste emaile batzuen izenak: Angel Luis Gainza, Xabier Gereño, Xabier Kintana, Jon Irazabal, Sebastián García, Guillermo Sautua, Ignacio Ugarte, Jose María Satrustegi, María Fernanda de la Iglesia, Pablo García Setién eta abar. Euskal Herriko Aurrezki Kutxak eta Diputazioak ere aipatu behar dira, trukez igortzen dizkiguten liburuengatik, eta Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak ere eskerroneko aipamena merezi dute.

Eskerrik beroenak eman behar dizkiet hasieratik laguntzaile izan dudan Nerea Altunari, 1982an Bertsolari Txapelketaren bertsoen transkribapena eta gero Juan Carlos Guerraren liburutegia eta artxiboa katalogatzten hasi ginnetik lanean ari den Josune Olabarriari, eta era berri honetan, tokiz aldatzten, ondorengo taitutze lanetan eta informatizazio arazoetan laguntzeko hitzartuta dagoen Kristina Aranari.

Erakusketak prestatzeko lanari gehitu behar zaio katalogoak eta kartelak kaleratzeko izan dugun ardura eta lana. Eta historia honetan aipatu behar dela, uste dut, hainbat argitarapen paratu ditugula gure fondoan dauden liburuetatik. Ondare honetatik atera ditugu hemen inguruan duzuen erakusketarako liburuak, zuzenean edo katalogoaren bidez ikus ditzakezuenak. Ene ustez nahiko adierazgarriak dira Euskaltzaindiak Azkue Bibliotekan daukan altxor baliotsua erakusteko. Guzti hau eta bibliotekan eta artxiboan dauden milaka aleak zuen eta ikerleen zerbitzurako jartzea da inaugurazioaren une honetan gure pozik handiena. Gure lana ez dadila alperrikakoa izan da une honetan gura duguna. Eta eten gabe lanean jarraituko dugula zin egiten dizuet, jaun andreok. Mila esker denoi eta agur.




Azkue Biblioteka estrenatzean. (Egoitza, 1992, VI, 26).

*Zutik:* P. Xarritton, Jon Bilbao, Iratzeder eta L. Villasante.

*Eserita:* A. Irigoien, J. M. Lekuona, J. Haritschelhar euskaltzainburua, J. M. Satrustegi eta J. A. Arana Martija.

# AZKUE BIBLIOTEKA

INAUGURAZIOA / INAUGURACION  
1992. 6. 26



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

ERAKUSKETA - EXPOSICION  
1992. 6. 26 - 1992. 7. 10  
**BILBO - PLAZA BARRIA, 15**

# KATALOGOA

Erakusketa honekin zabaltzen dugu **Azkue Biblioteka** Euskaltzaindiaren egoitza berrian, aro berri bati hasiera emanez. Gure Erakundeak, 1.918an sortu zenetik, Bilboko Erribera kalean zuen egoitza eta bertan kokaturik, bulegoekin batera, biblioteka eta artxiboa. Orain, Bizkaiko Diputazioak utzitako egoitzan, Bilboko Plaza Barrian, erosoago bilduta daude zerbitzu guztiak, bai langile eta, biblioteka eta artxiboari dagokionetik, ikerleentzat ere. Jarri ditugun baliabideak, informatizazioa barne delarik, erraztasun gehiago emango die euskara, hizkuntzalaritza eta euskal kultura ikertu nahi dutenei. Eta hau da Euskal Herriaren zerbitzurako Euskaltzaindiak egiten duen apostua.

Erakusketa honetan agertzen diren liburuak eta eskuskribuak Euskaltzaindiaren ondarekoak dira. Dauzkagun ale baliotsuenekin hautapena egin dugu, kultura zabalaren eredu batzu erakutsiz. Gure asmoetan dago aurrentzean beste erakusketa batzu prestatzea, gai monografikoak erabiliz, herriari kulturaren arlo desberdinen liburuak eta beste euskarriak ikus ditzan eskainirik. Hainbat urteren zehar lortutako altxor honekin Euskaltzaindia harro sentitzen bada, herria ere, erabilgarria denetik altxor hau, pozik egotea nahiko genuke.

Fitxa bakoitzaren bigarren zenbakiak liburu edo eskuskribuaren kokapena adierazten du.

Bilbon, 1992.eko ekainak 26

Con esta exposición se inaugura en la nueva sede **Azkue Biblioteka** de Euskaltzaindia, dando comienzo a una nueva época. Nuestra Institución, desde que nació en 1.918, ha tenido su sede en la calle Ribera de Bilbao, y en ella, juntamente con sus oficinas, la biblioteca y archivo. Ahora, en la nueva sede cedida por la Diputación de Bizkaia en la Plaza Nueva de Bilbao, se sitúan todos sus servicios con más comodidad tanto para sus empleados como para los investigadores en cuanto a biblioteca y archivo se refiere. Los servicios instalados, incluida la informatización, prestarán más facilidades a quienes quieran investigar el euskara, la lingüística y la cultura vasca. Y es ésta la apuesta que hace Euskaltzaindia al servicio del País Vasco.

Todos los libros y manuscritos que se muestran en esta exposición proceden de los fondos patrimoniales de Euskaltzaindia. Se ha hecho una selección de los fondos más valiosos, exponiendo muestras de una cultura más universal. Es nuestra intención preparar en adelante otras exposiciones, con temas monográficos, ofreciendo a la vista de los interesados libros y otros soportes de distintos campos de la cultura. Si Euskaltzaindia se siente orgullosa de este tesoro reunido a lo largo de muchos años, nos agradaría que el pueblo también se sintiera satisfecho de él, en cuanto que está a su disposición.

La segunda cifra de cada ficha indica el lugar en que se sitúa cada libro o manuscrito.

Bilbao, 26 de junio de 1992

**1 • 35****ABBADIE, A.Th. D'; CHAHO, J. Augustin**

Etudes grammaticales sur la Langue Euskarienne.

Paris: Arthur Bertrand, Lib., 1836

184. orr. ; 22 x 14,5 zm.

**2 • 91****AILLY, Pedro d'**

Imago Mundi de Pedro D'Ailly y Juan Gersón. Estudio crítico de Juan Perez de Tudela.

Madrid: Testimonio Compañía Ed., 1990

Fac.: Imago Mundi. - Lovaina: Juan de Westfalia, 1483

**3 • 90****(ALFONSO X)**

Las Siete Partidas del Sabio Rey Don Alonso el Nono, nuevamente Glosadas, por el Licenciado Gregorio Lopez.

Salamanca: Domingo de Portonariis, 1576

151 fol. + 116 fol.; 41,5 x 29 zm.

**4 • 98****ANTONINUS, Archiepiscopus Florentinus**

Confessionale "Defecerunt". Titulus de restitutionibus.

Argentinae: Martinus Flach, 1492

CLXI fol. + tabula; 20 x 14 zm.

**5 • 17****ARABARRA. Jaun - Goikua eta Lagi - Zarra.**

Vitoria, 1.912.I.12, n.1.

(4) orr.: 43 x 32 zm.

**6 • 26****ARANA, José Ignacio**

Arte metrica bascongada ó tratado analítico de la verificación euskara.

Eskuskribua, d.g.

66 orr.; 20 x 15,5 zm.

**7 • 64****ARANGUREN Y SOBRADO, Francisco de**

Demostración del sentido verdadero de las autoridades de que se vale el doctor Don Juan Antonio de Llorente ... en el Tomo I de las Noticias históricas de las tres Provincias Vascongadas, y de lo que en verdad resulta de los historiadores que cita, con respecto solamente al Muy Noble y Muy Leal Señorio de Vizcaya.

Madrid: Imp. de Vega y Compañía, 1807.

(4), 287 orr.; 20,5 x 15 zm.

**8 • 106****ARANZADI, Telesforo de**

Euskalerriko perrechikuak = Setas ú hongos del País Vasco. Guia para la distinción de los comestibles y venenosos. Atlas de 41 láminas cromolitografiadas.

Madrid: Lib. Ed. de Romo y Füssel, 1897.

2 orr. + 41 lam.; 17 x 25 zm.

**9 • 120****ARAQUISTAIN, Juan V.**

Tradiciones Vasco Cántabras.

Tolosa: Imprenta de la Provincia, 1866

380, 1 orr.; 20 x 13 zm.

**10 • 45****ARCHU, Jean - B.**

La Fontainaren, aleghia - berheziak, neurhitzez francesetik uskarara itzuliak.

La Reolen: Pasquieren moldeteghian, 1848.

313 orr.; 21 x 13 zm.

**11 • 36****ARCHU, Jean - B.**

Uskara eta franzes gramatika uskalherrietako haurrentzat eguna = Grammaire basque française à l'usage des écoles du Pays Basque. 2. edizionea.

Baionan: Imp. Foré eta Lasserre, 1835

VIII, 211 orr.; 19 x 11 zm.

**12 • 27****ARRUE (BARRENA), Gregorio**

Demostración práctica de las 206 conjugaciones del verbo bascongado, dialecto vizcaíno.

Eskuskribua, d.g.

164 orr. + 3 taula; 21,5 x 15,5 zm.

**13 • 33****ASTARLOA, Pablo Pedro de**

Apología de la lengua bascongada, ó ensayo crítico filosófico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen: en respuesta a los reparos propuestos en el Diccionario Geográfico Histórico de España, Tomo Segundo, palabra Nabarra.

Madrid: Por Don Geronimo Ortega, 1803.

XXIV, 452 orr.; 20,5 x 14 zm.

**14 • 79****ASTARLOA, Fr. Pedro**

Urteco Domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac, ceinzubetan azalduten dan Erromaco catecismua. Euretan aurquituco dabe Arima - zain euscaldunac, euren Elextar, edo Feligresai preducadu biar deutzen icasbidia: Baita bere Cristinau euscaldunac, cer jaquin, eta eguin biar dabeen.

Bilbon: Eusebio Larumbe, 1816

VI, 296, XLVIII orr.; 20 x 14,5

2 Tomo

**15 • 81****ASTETE, Gaspar**

Cristiñau Doctrina. Aita Gaspar Astetec erderaz escribidua; eta guero D. Gabriel Menendez de Luarcac gauza asco erantzita atera ebana; Orain eusquerara biyortuta urteiten dau argitara cerbaist gueiyagoturic. Laudiyoco Abade jaunen encarguz eta costuz.

Bilbon: Misericordiyaco etsian, Felipe Morales - en Moldateguiyan, 1828

105 orr.; 15 x 10 zm.

**16 • 97****AUGUSTINUS, Sanctus**

Plurimorum Opusculorum.

Venetiis: Dionysius Bertochus, 24.3.1491.

CCCXXXVIII fol., (3) orr.; 22 x 17 zm.

**17 • 109****AULNOY, (Marie Catherine) Condesa D'**

Relación que hizo de su viaje por España la señora Condesa D'Aulnoy en 1679. Primera versión castellana.

Madrid: Juan Jiménez Librero - Editor, 1891.

VIII, 264 orr.; 22,5 x 15,5 zm.

**18 • 41****AZKUE, Resurrección María**

Euskal - Izkindea = Gramática Euskara

Bilbon: Astuiko Jose - n moldegintzan, 1891.

401 orr.; 29 x 21 zm.

**19 • 10****AZKUE, Resurrección María**

Índice de cartas manuscritas (contenidas en este tomo) dirigidas por mí (R.M. de A.) a las citadas personas.

Eskuskribua, 1905 - 1919

183 orr. (106/115 birritan); 22 x 17 zm.

**20 • 11****AZKUE, Resurrección María**

Música Sagrada

Eskuskribua, d.g.

78 orr.; 29,5 x 21 zm.

